



31 - 32 / 0000022

NOMBRE - 0000022
DIRECCION - 0000022
20001 MUNICIPIO - 0000022
PROV - 0000022

Zergadun hori:

Idatzi honen bidez jakinarazi nahi dizugu iaz egin genizun errentako autolikidazio proposamena **aurten EZIN izan dugula prestatu.**

Ahalik eta proposamen gehien prestatzea izan ohi da errenta kanpainetan gure erronketako bat, aurkezpenaren tramiteak errazteko beti. Horrela, urtero 250.000 proposamen inguru bidaltzea lortu dugu.

Zure egoera tributarioa iazkoaren aldean aldatu delako ez dizugu autolikidazio proposamenik egin; gainera, une hauetan ez dugu eskura behar den informazioa proposamena **zehaztasun osoz** prestatzeko.

Hortaz, 2018ko errenta aitortpena aurkezteko obligazioa baldin baduzu, beste modalitateetako edozein erabili beharko duzu: **mekanizatua** -baldin eta lortutako errentaren batek aukera hori eragozten ez badizu-, edo **internet**. Gogoan izan aitortpena aurkezteko epea datorren **apirilaren 15ean hasiko dela**, eta apirilaren 12tik aurrera errenta mekanizaturako hitzordua eskatu dezakezula **943 11 30 00** telefonora deituz edo www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta helbidean sartuta.

Adeitasunez,

Jabier Larrañaga Garmendia
Ogasuneko eta Finantzetako diputatua

